

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko apirilaren 15a / 146. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Udalak irabazi egin du presoan senideen dirulaguntzekin lotutako epaiketa

UBANE MADERA

Arabako administrazioarekiko auzietako bi zenbakiko epaitegiak arrazoia eman dio Aramaioko Udalarari, presoan senideei emandako dirulaguntza dela-eta. Sententziaren arabera, laguntza horiek emateko eskumena Udalarena da, beraz, ez dago deliturik.

Estatuko abokatuak salatu zuen Aramaioko Udala. Presoan senideei, presoan bisitatzen joan ahal izateko 1.000 euroko dirulaguntza ematearren (Malagako Alhaurin de la Torre kartzelara Jon Agirre preso bisitatzen joateko eman zuten laguntza Udalak haren senideei). Udalaren abokatu Txomin Escuderok jakinarazi digunez, laguntza horiek emateko eskumena Udalarena dela argudiatu zuten defentsa moduan Gasteizen izandako epaiketan, joan den martxoaren 15ean. Besteak beste, zera argudiatu zuten: "Udalak ahalmena du, oinarriko udal zerbitzu sozialak direla-eta, pertsonen, familien edo taldeen integrazioa bultzatuko duten ekimenak lantzeko, batez ere, marjinazioari



Dagoeneko hiru bider salatu du Udala Estatuko abokatuak; bi epaiketa irabazi ditu eta bestea galdu, baina ez diote zigorrik ipini.

aurea hartzeko." Halaber, "laguntza horiek herritar guztiendako direla, inor diskriminatu barik", gaineratu zuten.

Hala, sententzian jakinarazi dutenez, argudio hori onartu eta

administrazioarekiko auzietako bi zenbakiko epaitegiak desestimatu egin du Estatuko abokatuak ezarritako errekurtsioa, Fernando Alcantarilla Hidalgo epailearen erabakiz. Horrenbestez,

bertan behera geratu da Udalaren kontrako salaketa. Hori bai, gogora ekarri beharra dago, orain, erabaki hori errekurritu egin daitekeela, EAeko Auzitegi Gorenean.

IRIZPIDE BERRIAK

Gauzak horrela, Aramaioko Udala ez du aurrerantzean arazorik izango mota horretako laguntzak ematen segitzeko. Are gehiago, presoan senideei laguntzak emateko irizpideak zehaztu ditu Udala orain dela gutxi. Horren arabera, honako baldintzak bete beharko dira: dirulaguntzak jasotzeko ahal izango dituzte presoaren bikoteak, seme-alabek, gurasoek edo anai-arrebek; horietako batek jasotzen badu laguntza, gainontzekoek ezin izango dute gehiago eskatu; eta preso bakoitzeko eskaria bakarra egin ahal izango da.

Presoak ere bete beharko dituzte zenbait baldintza. Besteak beste, laguntza eskatzen duten herritarren erroldatuta izan beharko du, edo hain jaiotakoa izan.

KARTZELAREN ARABERAKO LAGUNTZAK

Baldintzak betez gero, laguntza eman egingo du Udalak; kopurua baldintzatuta izango da kartzelaren kokalekuarengatik. Esaterako, gertuko erkidegoetako kartzelara joateko (Asturias, Madril...) bisitako 60 euro emango ditu; berriz, Andaluziara joateko, 200 euro bisitako.

Agirre ospitalean da, baina ez dute haren askatasuna lortu

U.M.

Atzo, eguena, ziren ebakuntza egiteko Jon Agirre presoari. Donostiako ospitalean da joan den eguaztenaz geroztik, ebakuntzarako beharrezko zaintzak egiten. Hura oso pozik dago, 24 urteren ostean itzuli delako Euskal Herrira. Edozelan ere, Etxerategi gogora ekarri du oraindik preso dagoela.

Eskumako motor hezurreen protesia ipintzeko egin behar zioten ebakuntza Jon Agirre Azpikori. Baina albiste hau idaztean oraindik egin barik zegoen, beraz, ez dugu presoaren gaineko berririk.


Kontuak kontu hura oso pozik dago, batetik Euskal Herrira itzuli delako 24 urte Espainiako kartzelatan preso egon eta gero, eta bestetik, osasuna hobetzeko behar dituen ebakuntzak egin behar dizkiotelako; hala adierazi digu haren aldeko taldeak: "Zortzi urte zain egon eta gero sinetsi ere ez du egiten ospitalean dagoela eta ebakuntza hain gertu".

GUZTIENDAKO BAIMENIK EZ

Ertzaintzaren zaindaritzapean dago Jon Agirre ospitalean. Eta bi senitartekori egunero bisitatzeko baimena eman diete. Beraz, dezentente onera egin du haren egoerak. Edozelan ere, Etxerat elkartek

jakinarazi digu Azpikoren anai-arrebek bakarrik dutela hura bisitatzeko baimena, gainontzeko senitartekoei (lobek, koinatak) kanpoan geratu behar izaten dutela.

Horrekin batera, zera ere gehitu du Etxerategi: "Ospitalean egotea albiste ona izan arren, Jon Agirrek preso izaten segitzen du. Horrenbestez, ebakuntza egin ostean, kartzelara eramango dute berriro, oraingo Logroñora". Horren harira, gaineratu zuten Jon Agirreraren senide eta lagunek presoaren askatasuna aldarrikatzen segitzeko asmoa dutela. Hain justu ere, presoaren etxeratzea eskatzeko ekimena egin zuten joan den barikuan, Arrasaten.



Globoekin lotutako pankarta zeruratu zuten, Jon Agirreraren etxeratzea eskatzeko.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martín Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 67
Zulako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	07:50	08:05
	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutako da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

UDALETXERAKO SARRERA

Alkateak kexua azaldu digu gaizki aparkatutako ibilgailuak direla-eta. Kontua da udaletxeko berritze lanak egin zituztenean, besteak beste, zailtasunak dituztenendako egokitu zutela eraikina eta ingurua. Hala, igogailua ipini zuten, batetik, eraikin barrurako. Eta arkupera sartzeko aldapa egokitu zuten, bestetik. Baina orain gertatzen dena da askotan automobilak aparkatzen dituztela aldaparen aurrean, eta ezinduek ezin izaten dutela hura erabili. Gauzak horrela, alkateak herritarrei eskatu nahi die errespeta dezaten sarrera hori.

BARIKUKO ZINEMA

Juan Jose Campanella zuzendariaren *Luna de Avellaneda* drama emango dute. 143 minutu irauten du. Ricardo Darin, Mercedes Moran eta Eduardo Blanco aktoreek parte hartzen dute, besteak beste. 22:30ean hasiko da.

DOMEKAKO ZINEMA

Umeendako *El Retorno del Jafar* filma aukeratu dute. 17:00etan hasiko da.

Literatura klasikoaren gordailua aurkeztu dute: webgune berria

U.M.


Euskal literaturako testu klasikoaren gaineko webgune berria aurkeztu zuten atzo Gasteizen.

www.armiarma.com/klasikoak/ da haren helbide elektronikoa. Patxi Salaberri aramaioarrak egin eta zuzendu duen Euskal Letren Gordailuan dago oinarrituta Klasikoaren Gordailua izeneko webgunea.

Era berean, Patxi Salaberri aramaioar idazle eta irakaslea izango da webgune berriaren zuzendari. Klasikoaren Gordailua izena ipini diote, hain justu ere, euskal literaturan klasikotzat hartzen diren testuak batu dituelako. Asmoa zera da: "Euskal literaturako lehen agerpenetatik 1936ko gerrak ezartzen duen mugara arte ekoitzi diren euskarazko literatura testuak biltzea". Hala, atzoko aurkezpenean jakitera eman zuten Salaberriren gidaritzapean lan handia egin dutela: "200 liburu klasiko baino gehiago digitalizatu ditugu bere ardurapean. Altxor handi bat da, une honetan beste inon topatuko ez dena... horrenbeste lan, gutun, bertso, poema, hiztegi, atsotitz eta beste... gune bakar baten eta osorik batzea".

SAILEZ SAIL

Klasikoaren Gordailua sailka banatu dute. Hala, sail nagusia *Idazleak eta Idazlanak* izeneko da.



Atzo ezker erabilgarri dago euskal literaturarekin lotutako webgune berria.

Euskal Testuen Gordailuan zuden 70 liburitik gora hartu, berriro landu, zuzendu eta webgunean jarri dituzte. Horrez gainera, beste 100 liburu inguru digitalizatu dituzte edo lehenagotik formatu digitalean zeudenak hartu eta sarean ipini dituzte.

Herri Literatura izeneko sailean, berriz, herri tradizioak utzitako literatura batu dute: poesiak, ipuinak, kondairak, atsotitzak, antzerkia...

Bestalde, *Testuak* sailean balio filologiko edo historiko hutsa duten hainbat testu bildu

dituzte. Eta horrez guztiaz gainera, bilatzaileen berri ere ematen dute webgunean.

ELKARLANEAN EGINDAKO LANA

Bi elkarteren artean elkarlana egin dute webgune berria sortzeko: "Klasikoaren Gordailuan bi ahaleginen batuketa dago, Euskal Testuen Gordailua, batetik, eta Susa literatur argitaletxea, bestetik (...) Bien elkarlanetik sortu da, eta hala jarraituko, Susa argitaletxearen ekimenez, Patxi Salaberriren zuzendaritza literariopean".

Cuatrocientos baserrikoak ere kezkatuta daude LH Trengatik

U.M.

Lastertasun Handiko Trenak hasieratik piztu du kezka zenbait herritarren artean. Bereziki, kalteak izan behar dituzten herritarren artean. Orain, udaletxean dagoen proiektuaren arabera, trenaren ibilbidea apur bat aldatu egin dute. Horrek kalte gehiago ekarriko die batzuei.

Joan den astean Bolinburu baserrikoen kezka berri eman genizuen. Trena haiengandik dezente gertu pasatzen dela-eta, hango bi eraikinetan izango duen eraginak kezkatzen ditu hango bizilagunak. Orain, berriz, beste baserri batetik iritsi zaigu kezka: Cuatrocientostik.

ETXETIK GERTU-GERTU

Azaldu digutenez, orain Udalean dagoen Lastertasun Handiko Trenaren proiektuak erakusten du trenaren ibilbidea aldatu egin dutela. Kontatu digutenez, lehengo bidalitako proiektuaren ara-

bera, baserriaren aldamenetik 150 bat metrora pasatzen zitzairen Lastertasun Handiko Trena. Tunelpean egin behar zuen ibilbide osoa. Orain, berriz, udaletxean dagoen proiektuaren arabera, trena tunelpean sartuta pasatzen da Cuatrocientos ondetik, baina baserriatik askoz ere gertuago, 20-30 bat metrotara, hain zuzen ere. Eta horrek baserriaren inguruan izango duen eraginak asko kezkatzen ditu Cuatrocientostoko bizilagunak. Batez ere, tunela egiteko lehergailuak erabili behar dituztenean. Euren kezka langileren bati helarazi diotela esan digute, eta hark zera erantzun diela: "igarri ere ez duzue egingo".

ZER EGIN, JAKIN EZINDA

Esan digute egoera horren aurrean ez dakitela zer egin: "Haiekin ez onean ez txarrean, ezin daiteke ezer egin". Eta etxearrendako arriskua handia dela nabarmendu digute. Egoera tristea bizitzen dabilzala gaineratu digute eta ez dutela txikiziorik nahi.

Manex Agirre hirugarren bertsolari txapelketan

UBANE MADERA

Zortzigarren urtez, Asier Otamendiren eskuetan (edo buruan) geratu da Arabako Bertsolari Txapelketako txapela. Oihane Perea izan zen bigarren. Eta Manex Agirrek podiuma egitea lortu zuen, hirugarren postuan sailkatu zen-eta.

Hiru puntura geratu zen Oihane Perea Asier Otamendirengandik. Manex Agirrek, berriz, puntu askoren aldearekin, baina hirugarren postua eskuratu zuen. Gauzak horrela, aurreneko biek Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian parte hartuko dute. Ez, ordea, Agirrek. Oro har, honakoa izan zen sailkapena: Asier Otamendi (565,5 puntu), Oihane Perea (562,5 puntu), Manex Agirre (362,5 puntu), Juan Mari Juaristi (356 puntu), Zigor Enbeita (354,5 puntu) eta Iñaki Viñaspre (323 puntu).

Kontuak kontu, aurten ere hor aurrean egotea lortu du Manex Agirrek eta ez du meritu

LABUR

Errespetu falta salatu du herriko gazte taldeak

Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanbladak eurekiko errespetu falta salatu du EAJrengandik. Bigarren eskuko liburu azoka iragartzeko kartelen gainean EAJk hauteskundera kartelak jarri zituelako, eta EAJrengandik argibide desegokia izan dutelako egin dute salaketa gazteek: "Esplikazio gabe geundenez, eta bage-nekienez EAJko zein pertsonak jarri zituen kartel horiek, gutako batek bereganatu jo zuen. Horren aurrean kartelak tapatu zigun EAJko militante hori, barkamena eskatu beharrean, haserretu egin zen, zergatik gindoazen gu esplikazio eske esan, eta hurrengo kartelak jarri beharko balitu eta paretan berritoki tokatuz gero, berriro tapatuko zituela adierazi zuen inongo lotsarik gabe".

Zera ere gaineratu dute: "Kartelak ipintzeko lekutik kanpo kartelak jartzeko kritikatuta eta kastigatu duen partidu batek, gazteok ez dugula ezer egiten behin eta berriro aurpegiratu digun partidu batek eta errespetua eskatu duen partidu batek kartelak lekutik kanpo jarri ditu, gure ekintza baten kartelak tapatu ditu eta barkamena eskatu beharrean, harrotasun eta gehiegikeria nazkagarri batekin, ez digu inolako errespeturik erakutsi".

makala, kontuan hartuta Granadan dabilela ikasten eta ezin izan duela larregi entrenatu. Kritikoaren esanetan, ale ederrak bete zituen aramaioarrak, baina tarteka sumatu zitzaion erro-daje falta. Besteak beste, bullyingaren gaia landu zuen bakarkako saioan.

GRANADAKO LOREAK, LAGUNEN OMENEZ
Sari moduan, pitxarra eraman zuen Manex Agirrek Granada aldera. Kartzelako eta azken agurren tartean, Granadako loreekin beteko zuela agindu zuen: "Pitxarrekin alde egin behar du hirugarrenak/Andaluzia aldera daruma bizitzan trenak/udaberririak lorez betetzen ditu hango bazter denak/zuena omenez jarriko ditut Granadako politenak".

GIRO POLITA, BAINA ENTZULE GUTXI
Finala domekan jokatu zuten Jesus Guridi kontserbatorioan, eta areto txukuna izan arren eta giro polita sortu arren, bestetan baino entzule gutxiago batu zen finala entzuteran.